

BEZEROEKIKO HARREMANA:

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Lehenik eta behin, bezeroak erakartzeko publizitatean oinarrituko gara, telebistan, albisteetan, egunkarietan edota kartelak erabiliz. Horrela, iragarkia ikusten duten pertsonak aplikazioa erabiltzera gonbidatuko dugu. Bigarrenik, eskola desberdinetan triptikoak eta kartelak banatuko ditugu, horrela, familiak erakarriko ditugu.

Bezeroak mantentzeko, etengabe berriztuko dugun aplikazio bat izango denez, hau da, eguneratuta egongo denez, informazio berria jasotzeko aukera izango dute, dietak, menuak, aholku berriak... Gainera, bezeroek edozein zalantza izatekotan, gurekin harremanetan jartzeko aukera izango du aplikazioaren chatt-aren bitartez (gertutasuna mantetzeko). Horrekin batera, indibidualizatutako aholku zein informazioa emateko aukera dugu.

Azkenik, eta denbora aurrera egin ahala, bezeroen interesetan oinarrituko gara aplikazioa eguneratzeko orduan.

Laburbilduz, bezeroa izango da gure habiapuntua, eta haien beharrak asetzeko helburuarekin jardungo dugu.